

ortzadar

Larunbata, 2013ko azaroaren 2a. 328 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

IZAN... ALA IZAN


2013. urteko 'Hamlet'
gaurkotu eta euskaratua
dakar Ximun Fuchsek

-- 4-5. orrialdeak --

ITSASO GUTIERREZ

"Gure gizarteko arrasto
matxistak aldatzen saiatu
behar gara", dio musikariak

-- 2. orrialdea --



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski

ATARIA

Bat gehiago



LUXUE APAOLAZA

LANERA iritsi eta lankideak berriak komentatu ari ziren dagoeneko; Parot Doktrinaren kontrako Estrasburgoko Auzitegiaren erabakia arbuizatzeko manifestazioa, Manolo Escobarren heriotzari buruzko azken txisteak, eta batez ere, Real Madrid/Barça partida. Baina bezperan, inori buruz esan daitekeen definitiboena jakin genuen Lou Reede; hil egin zela. Hori ere kosta zen zehazten egia esan, aldizkari batek berria argitaratu zuenetik, pertsonaiaren inguruko batek baieztatu zuen arte pasa baitzen tarre bat, jendeak Twitterren motorrak berotzeko baliatu zuena. Gero testimonio erakustaldiak hasi ziren, argitaratzeko, komunikatzeko, bakoitzak zuen zirrikitutik; konpetentzia handia nonbait eta norgehiagoka baten kutsua hartzen zitzaion tarteka bakoitza norberaren esperientzia eta artistaren inguruko jakituria mahaian gainean jarriz, bat batean hain multzoko sentitzeak sortzen duen deserotasunaren ondorioz ere bai behar bada; nork lehenago, nork sakonago, nork orratz handiagoz.

Heriotzek zerbait ona badute, denok elkartzen gaituztela da, eta hori bera da txarrena ere,

familia guztietan bezala, ez zaizkizu hileta elizkizunetara hurbiltzen diren guztiak gustatzen (ezta zuri buruz adieraz dezaketena ere). Twitter den herriko plazan, El Corte Inglés edo Miguel Angel Revillaren mezuak ikus zitezkeen kantariaz; interesatuak asko eta antzatz garenaren seinale. Badu abantaila bat familia mota honek baina, ez du interakzio eskatzen, ez duzu lehengusu urrunekin hitz egin beharrik, ezta aitonaoren istorio guztiak entzun beharrik ere. Nire belaunaldia ez da Lou Reedeekin hazi, eta ez dugu taldean entzun; guri klasiko iritsi zitzaigun; *niri* hobe *guri* baino; nahiko banaka topatu baikara gurea lagun du, irauli edo eramangarriago egin duen beste mundu horrekin.

Kontserbaziorako dugun tendentziak, artista hilaren obraz eta bizitzaz erregistraturik, gorderik, guztion eskura geratu denak, ez du zehazki Lou Reeden bizitza luzatzen, geratzen garenona eta datoztenena handitzen du; Flauberti irakurri nion, Louise Colet bidali zizkion gutunetan, niretzat zergatik liburuak, edo kantak, edo... ziren tranzendentak eta salbatzaileak; *lagun ezezagunentzat argitaratzen dugu.*

Inprentak horixe baino ez du ederretik. Zabor-tegi zabalagoa da, urrutitik kolpatuko duen sinpatia tresna bat. Eta Flaubertek ni idatzi ninduen eran, Lou Reede ere bizitza asko idatziko ditu. Horretarako ere ez dira txarrak heriotza hauek, aukera berriak dira jende askorentzat, urrun jaio direnentzat, lanera joan eta beste gai batzuk entzuten dituztenentzat.

Igandea eta astelehen bihurtu ziren monografikoan, Twitterrekin jarraituz, komentario bat idatzi zuen norbaitek, batzuen nabarmendu nahiaz barrez edo, esanez, bera Lou Reeden jarraitzaile sutua izan dela bere izena ezagutu duen azken hoge minutuetan; behin obra jatorrizko belaunalditik eta nostalgiatik salbatuta, gehiago autorearen heriotzarekin, fisiko ki gertu dagoen talde baten kontua izateari utzi dio, eta igande gauean etxeetako gela bakartietan jarri zen musikaren berri jakin ahal bagenu, mota eta adin askotako jendea ikusiko genuke Lou Reeden kanta bati adi, bakoitza sinpatia tresnaren kolpea bere biografiaren edo izatearen auskalo zein aldetan jaso. Mendebaldarrok, badirudi oraindik badugula oinordetzan harro har daitekeena.

Kontserbaziorako dugun tendentziak ez du zehazki Lou Reeden bizitza luzatzen, geratzen garenona eta datoztenena handitzen du

Fikzioa

SALDUENAK

1. Euli-giro

Uxue Alberdi. Elkar.

2. Arma, tiro, bamm!

Joan Mari Irigoien. Elkar.

3. Egia esan

Peru Magdalena. Elkar.

4. Alkatoroko benta

Mikel Taberna. Susa.

5. Adiskide bat nuen

Joxean Agirre. Elkar.

6. De rerum natura 5

'Zaldieroa'. Elkar.

Ez Fikzioa

1. Hitzunpolisa

Jon Sarasua. Pamiela.

2. Preso nago

Mikel Orbeago. Ataramiñe kultur elkarte.

3. Independentziaren paperak

Pako Aristi. Erein.

4. Aiztoa eta arkatza

Hainbat autore. Txalaparta.

5. Urruneko mendebaldean artzain

Mattin Etchamendy. Maiatz.

6. Absurdoko kontuak

Patxi Zabaleta. Pamiela.


LIBURU DENDAK: Elkar (Bilbo), Auzolan (Iruñea).

ERAKUSLEIHOA

ELEBERRIA

'Tango urdina'

Aitziber Etxebarria.
Erein. 184 orr.
7,60 euro.



GAZTE LITERATURA

'Skaterrak. Ertzean'

Mikel Valverde (testua eta irudiak).
Giltza. 290 orr.
9,80 euro.



HAUR LITERATURA

'Tripoli doktorea'

Karlos Linazasoro,
Bruno Hidalgo (ilus.).
Elkar. 94 orr.
13,35 euro.



Zirrarak gidatutako ekintzak

"Komunera joan eta alboko bainugelaren norbait zegoela konturatu nintzen batean, jakin-minak bultzaturik, begia paretaren kontra jarri eta zirrikitutik begiratu nuen. Ikusi nuenak ia arnasarik gabe utzi ninduen. Berebiziko emakume bat zen nire bizilaguna eta biluzik zegoen, baina nuontzira sartzeko asmotan. Badakit ez dudala ondo eginen, baina orduan sentituzko zirrararen beste behin dastatu asmoz konponketa atzeratzea erabaki nuen eta horrela nire hasierako asmo ona beratan behera geratu zen..."

Mugak gaindituz, skate-a bide

Skate-a da haien mundua: askatasuna, mugak gainditu nahia eta adiskidetasuna. Hiri da haien skatepark-a, eta ez beti agertoki samurra. Mikel Valverdek idatzi eta irudiztatutako 'Skaterrak' trilogiako gai nagusiak hauek dira: familiarteko harremanak, zaletasunak, maitasuna eta bizikidetzat. Liburuotan, arkitekturak, teknologiak eta arte garaikideak markatuko dituzte, hurrenez hurren, skateazaleen abenturak. Hirian giroa, edozein hiri izan liteke eleberrien eszenatoki.

Doktore bitxi baten egunerokoa

Anbulatorioko itxarongela lepo zegoen, gainezka. Beti bezala, goizeko zortzietan puntu jarri zen martxan hormako kontagailu erraldoia. Tripoli doktorea eta Olga Tokarczukowa erizaina prest zeuden gaixoak artatzeko. Udaberria iritsi berria zen, ordea, eta Tripoli doktoreak nahikoa lan bazuen sudurreko zulotik irten zitzaion geranioarekin zer egin ez zekiela. Beste gaixo askoren artean, Karl Linazasorr azaldu zen azkena, beti norabide okerrean zebilen poeta...

ZALDI EROA



Editorial Iparragirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Inaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Kordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Zuzenketak: Iratxe Gaztañaga
Portadako argazkia: Guillaume Méziat
Lege Gordailua: BI 1720-06




Cehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.

Beti egungoa izango den klasikoa

Shakespeare idazle ingelesaren **'Hamlet'** obraren euskal bertsioa zuzendu du Ximun Fuchsek. Klasikotasunetik atera eta 2013. urtean izan dezakeen indarra nabarmendu du zuzendariak, "antzerkia ez delako museoko obra bat"



JON ANDER URKIAGA EGIDAZU



HAMLET XXI. mendean eta Euskal Herrian. *Hamlet*, gaur eta hemen. *Hamlet* antzerkien antzerkia da. Garai bakoitzak bere irakurketa behartzen du. Argiki eta arintasunez, Shakespearek munduaren eromena marrazten du. Obraren ekintza politikan oinarritzen da: gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, diru-gosea, hitza hitz ala hitza jan. Baina erabakia ez da ekintza, eta aizu dena ez da justizia, noski... hor da auzia". Horrela dakar ikuskizunaren webgunean ezarritako sinopsiak. Eta hori guztia taularatu zuten, estreinakoz, Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeek Luhuson (Lapurdi), atzo.

Hiru antzerki taldeen elkarlana ez da berria. 2010. urtean *Errautsak* antzezlanaz plazaratu zuten, eta baita arrakasta erdietsi ere. Baina, Ximun Fuchs zuzendariaren (Larabale, Nafarroa Beherea, 1974) hitzetan, topaketa berri hau ez da aurretiaz lorturiko arrakastaren ondorio: "Bagenekien ez genuela egin behar *Errautsak II*; nire ustez, erronka artistiko ahula dauka gauza bera berriz egiteak, zer eta aurreko aldiren batean funtzionatu zuelako. Orduan hitz egiten hasi ginen: zer egin genezakeen, zeren inguruan... eta batek komentatu zuen: *zergatik ez egin Hamlet?*. Hasieran irriz hartu genuen proposamena, *Hamlet? Nola?*. Gero, aldiz, obra irakurtzen hasi ginen, eta heldulekua bazuela iruditu zitzaigun. Baina egokitzapen honekin ez dugu gauza berririk aurkitu, ez dugu guk asmatu, badakigu *Hamlet* obra ona dela, interresgarria eta oso indartsua, baina, horrez gainera, interesatzen zaigu ikustea obra horrek zer kontu diezaiokeen gaur egungo euskaldunei". Hiru antzerki talde izan arren, honezkerok energiak nahastuta dituztela azaldu du Fuchsek, eta osatzen duten lantalde hori "berez bizi da, eta ez hiru zatitan".

Egokitzapen lana, aldiz, Xabier Mendiguren Elizegik (Beasain, 1964) egin du, eta berak ere talde lanaren kontzeptua azpimarratu du. "Fuchs anaiekin eta Ander Lipusekin hasi ginen hizketan obra berri bat egitearen inguruan, eta posibilitateen artean aipatu zen *Hamlet* egitea, baina gure erara; eta ideia hori erakargarri egin zitzaigun, eta Shakespeareren jatorrizko testua irakurtzen hasi ginen: hortik zer gorde eta zer ez, zer moldatu, zer aldatu... Gauza horietaz denon artean hasi ginen hitz egiten. Beraz, ez zen izan nik etxetik itzulpena eramanez eta kito, denon artean moldatutako zerbait baizik". Baina testuak elementu biziak izaten dira, eta areago, idazlearen eskutik irten ostean aktoreen eskuetara heltzen badira: "Ondoren, entseguak egiteari ekin genion, eta entseguen arabera saioetan testu baten gainean aktoreek moldaketak egiten dituzte, edo inprobisazioekin jokatzen hasten dira, eta orduan testuak autonomia handiagoa hartzen du. Beraz, jatorrizko testutik ez urruntzen saiatu gara, espiritua berbera baita, baina horrelakoetan testua autonomoago bihurtzen dela ere egia da".

Horrelakoetan hari fin baten gainean dabilen ekilibrista izan ohi da idazlea. Erortzea saihestuko dion oreka aurkitu nahi izaten du testua egokitzen duenak. "Gehiegi urrunduko ote zaren beldurra, libreegi ote zabilzan...". Mila galdera sortzen dira. Hala ere, Mendigurenen ustez, libre da jatorrizko testutik zenbat urrundu, edo zenbat errespetatu behar den norberak erabakitzea, idazlearen zalantza hor agertzen badira ere. "Jatorrizko *Hamlet* obraren espiritua mantendu nahi genuen, baina gure gaur egungo egoerara ekarrita".

XXI. MENDEKO HAMLET EUSKALDUNA XVII. mendeko testu bat gaur egungo ikuspegitik, gaur egungo hizkeratik, egungo estetikatik edo gure

KONTRALDEA

ANE ZABALA

RAFA RUEDA

KONPOSITOREA ETA ABESLARIA

“Musika emozioak azaleratzeko bide bat da, eta hori izpirituaren behar bat da”



Hamar urte egin ditu bakarka, baina mantentzen ditu betiko lagunak. “Beti gazte”, Mungiako artista bulkadei kasu egitekoa da, intuizioan sinisten baitu Jainko txikietan bezainbat. Bitartean, gitarrak laguntzen dio tripa ezkututzen

DUELA 22 urte hasi zuen Rafa Ruedak musikaren bidea. Gurpilak eman dio bidean aurrera egiteko indarra. Atzera begiratu bai, baina PILT-ren partida oroitzen poltsan gordeta du. “Ez naiz *revivalen* zalea”, dio.

2004an partida amaitu zuen PILT-k, 'Game over' diskoarekin. Berriz jolasteko tentaziorik? Inoiz komentatu izan dugu, baina momentuz ez dut neure burua horretan ikusten. Horrek ez du esan nahi halako batean, eta gorputzak horrela eskatzen badigu, zerbait egin dezakegunik. Momentuz ez dut gertu ikusten.

Badira euskal talde asko urteren buruan bueltatu direla; 'lapsus tempore' bat egin ostean, jendea agian gogotsu dago?

Egia esan, jarraitzaile nahikok eskatu digute eta kontzertu antolatzaile batzuek ere deitu izan digute, sekulako eskaintzak eginez. Inoiz egingo bagenu naturala izan beharko zen, guk nahi dugulako. Talde asko bueltatu dira, modan dago, baina ez naiz *revivalen* zalea. Agian egunen baten nire hitzak jan beharko ditut. Baina uste dut, geure kasuan behintzat, ondo dagoela dagoen lekuan: oroitzen poltsan.



Kantaria, musika sortzailea baina, batez ere, “musika gizona” gisa definitzen du Ruedak bere burua.

DAVID DE HARO



Edozein sorkuntza terapeutikoa izan behar da; ni behintzat askoz txarrago biziko nintzateke musika gabe”

2002an hasi zinen bakarlari gisa, lau disko eta buelta asko. Nola sentitu zara bide horretan?

Orokorrean bide pozgarria izan da. 22 urte daramatzat musikaren munduan, nire bizimodua bihurtu da, eta bertan jarraitzea da helburua. Faltan dut talde lana, PILT-ekin neukana, baina bestetik askatasuna irabazi dut. Orain ne naiz erantzukizun guztia duena; onerako eta txarrerako. Nekea eta poza dakar; aldi berean.

Bakarka, baina beti gitarrarekin. Gitarrarik gabe oholztan biluzik?

Agian, edo tripa bistan... Kar-kar! Kostatuko litzaidake oholztan gainean gitarra barik egotea, ohitu egiten zara eta zure euskarria da. Bertso-lariak mikrofonoa behar duten bezala, nik momentuz gitarra behar dut.

Musika eta literatura batera doaz; Lauaxetaren omenezko diskoa eta orain Gabriel Arestiren 'Lekua' ikuskizunean parte hartzen ari zara. Bi idazle, bi momentu ezberdin?

Lauaxetarena gertutasun geografikotik tokatu zitzaidan. Nahiz eta Laukizen jaioa zen, Mungia herriarekin lotura handia zuen eta ni bertakoa izanda horrela suertatu zen. Gabriel Arestiren kasuan Zenbat Gara elkartetik proposatu zidaten idazlearen jaiotzaren laurogeigarren urteurrena ospatzeko. Esperientzia politak izan dira, eta bietan saiatu naiz nire mundura ekartzan. Distantziak salbu, konturatzen zara ez garela horren urrun bizi nolabait.

'Jainko txiki eta jostalari hura' aurkeztu berri Ondoan, berriz jolasean jarri zarete lagunak?

Laurok gaude berriz elkarrekin oholztan gainean hamar urteren ostean eta bada kimika. *Zaharregia txikiegia agian* egin genuenean harriginen zein erraz atera zen dena eta oraingoan ere kimikak funtzionatu du.

Durungoko hitzordua ate joka, hainbat 'stand'etan egon beharko zara orduan?

Bai, aurrean horrela suertatu da. Urtero joaten gara, batzuetan lan gehiagorekin, eta lanik ez badago beti da parada ona lagunekin zerbeza batzuk hartzeko edo parranda egiteko! Aurrean badirudi lana izango dela motiborik nagusia, ea parrandarako tartea ateratzen dugun...

“Nerabe eternoak” zaretela esan duzu?

Bizitzeko modu bat da finean. Batez ere bizizaleak gara, inpultsoen bitartez funtzionatzen dugu eta horrek nerabetasunarekin erlazioa handia dauka.

Kantugile bezala definituko zenuke zeure burua?

Bai, kantugile, musikagile, kantari. Lagun bertsozale batek, bertotan ibilitakoak, ez zuen bere burua bertsolari gisa ikusten, “bertso gizona” legez definitzen baitzuen. Nire kasuan kantaria naiz, musika sortzailea baina, batez ere, *musika gizona*, kar-kar!

Abizenek ekarri dizu proiekturik: Ruedarren bilkura egiteko beste proposamenik ba al dago?

Oso esperientzia bitxia izan zen, Sonia Rueda eta Alicia Ruedarekin batera eginiko erakusketa musikatu. Momentuz geldirik dago, baina Sonia Ruedak asmoa zeukan Rueda abizena zeukaten beste sortzaile batzuegana jozteko eta gurpil horrekin jarraitzeko.

Behin esan zenuen musika terapeutikoa dela. Horrela izaten jarraitzen du?

Bai, edozein sorkuntza terapeutikoa izan behar da. Musika emozioak azaleratzeko bide bat da eta hori izpirituaren behar bat da. Niretzat terapeutikoa da, hori barik askoz txarrago biziko nintzateke.

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak • hizkuntza aholkularitza • papergintza



www.artez.net
posta@artez.net
944 480 000